

FEMINISMOA KLASE BORROKA DA.

Maiatzak 1
2026.

Sistema kapitalista heteropatriarkal kolonialista eta arrazistaren aurka kalera ateratzeko unea da. Gure gorputzen, lurraldeen, komunitateen eta bizitzen defentsan.

Kapitalismoak gure gorputzak, bizitzak, harremanak eta lurraldeak bere logikaren arabera antolatu eta merkantilizatu ditu. Horren aurrean, bizitzak sostengatzen dituzten lan eta prozesu guztiak, historikoki ikusezinak, feminizatuak, arrazializatuak eta prekarizatuak izan direnak, argitara atera ditugu.

Guzti horiek zapalkuntzan oinarritutako egungo sistema ekonomikoa sostengatzeko ezinbesteko prozesu ekonomikoen parte direla ulertu eta ikusarazi dugu.

Zapalkuntza egoera horiek klase zapalkuntzak gurutzatzen ditu ezinbestean. Baina, klasea ezin dugu kategoria estanko gisa ulertu, klaseen barruan dominazio egoerak ere gertatzen dira eta egoera horien gaineko irakurketa feminista egitea dagokigu. Beraz, klase borroka ez dugu ulertzen feminismorik gabe, ezta askotariko borroken arteko artikulaziorik gabe ere.

Mugimendu feministetatik etengabe borroka berriak ari gara pizten. Bizi ditugun esplotazio eta zapalkuntza egoerak askotariko subjektuetatik borrokatuz, estrategia komunak eraikitzen ari gara. Ez gara ameskeriaz ari: mundu eraldatzen ari gara eguneroko praktiken bidez.

Sistema kapitalista, heteropatriarkal kolonialista eta Larrazistarik gabeko Euskal Herria imajinatu eta eraikitzeko prozesuan lanean jarraitzen dugu.

Faxismoari, eskuin muturrari, erreakzionarismoari nahiz gorroto diskurtsoei feminismotik erantzunez.

Sistema iraunarazi nahi duten egituren aurrean, guk gure etorkizuna ehuntzen dihardugu.

Bizitzak erdigunean jarriko dituen Euskal Herria Feminista baten alde. Burujabetza feministaren bidez desiratzen dugun etorkizuna praktikara eramateko konpromisoan jarraituko dugu.

Gora borroka feminista!

Gora langileon borroka!